



Bertsozale Elkartearen Berripapera

	ESPAÑA
	FRANKEO ITUNDUA
	FRANQUEO CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

Bertsozalea

www.bertsozale.com

2015eko OTSAILA - 161. zenbakia

Senperen egingo dugu aurtengo Batzar Nagusia

Martxoaren 7an izango da eta bazkide guztiak gonbidatuta zaudete

Urtarrilean hasi ziren Araba eta Nafarroa urteroko batzarrak egiten eta otsailean Bertsularien Lagunek, Gipuzkoak eta Bizkaiak egingo dituzte. Horien ostean urteroko hitzordua ailegatuko da, Euskal Herriko Batzar Nagusia egingo dugu Senperen martxoaren 7an.

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Batzar Nagusia martxoaren 7an izango da goizeko 11:00etan Senpereko Amotze auzoko Larraldea Etxean.

Ohi bezala, Iñaki Murua Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko lehendakariak emango dio hasiera batzarrari. Horren ostean, 2014. urteari errepassoa egingo diogu, urteko memoria eta balantze ekonomikoak aurkeztuko ditugu.

Atzera begirakoarekin amaituta, aurrera begiratzeko txanda ailegatuko da eta urte honetarako esku artean ditugun egitasmoak ezagutuko ditugu.

Herrialde bakoitzak bere egoeraren berri emango du lehendakariaren ahotik: Gipuzkoatik, Saroi Jauregi; Xiberoa, Lapurdi eta Baxenabarretik, Joana Itzaina; Bizkaitik, Asier Ibaibarriaga; Arabatik,

Ekaitz Elorriaga eta Nafarroatik, Alaitz Rekondo.

Herrialdeen egoera ezagutu ondoren, 2015erako egitasmoa sailez sail errepassatuko dugu arloz arlo: Koordinazioa, Genero Taldea, Transmisioa, Sustapena, Lanku, Ikerkuntza, Xenpelar Dokumentazio Zentroa eta Komunikazioa.

Batzarrarekin amaitzeko, 2015eko aurrekontua aurkeztu eta bozkatuko da.

Batzarraren ondoren, bazkaria

Behin batzarra amaituta ohikoa den bazkaria egingo da. Urtxola ostatuan egingo da eguerdiko 14:00etan. Bazkaria joan nahi duten bazkideek aurretik konfirmatu behar dute, 943694129 telefono zenbakian edo komunikazioa@bertsozale.eus helbide elektronikoa. Otsailaren 27a da bazkarian izena emateko azken eguna.

Batzar Nagusira joaterik ez daukan bazkideak apirilko Bertsozalean jasoko du horren inguruko informazio zehatza.

Herrialdeetako batzarrak

Euskal Herriko bakoitza astebete lehenago, otsailaren 28an, Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak, Bizkaiko Bertsozale Elkarteak eta Bertsularien Lagunek egingo dituzte, Bergaran, Larrabetzun eta Senperen bertan.



NEREA IBARZABAL
Irun, 2014-I-13
Mari Dominginen rolean

Orain artean Olentzero zen gure artean bakarra baina ez zuten inoiz eman nahi holako irudi txarra eta norbaitek ikusi zuen andrazko baten beharra. Bere alboan joaten naiz orain aurpegian irrifarra beste bateri jarriozue holako senar baldarra!

Aldatu nahi zen irudiz eta aldatu nahi zuten garaiz baina agian hau bihurtu da Mari Domingirentzat gaitz nola denborak aldatzen diren ta aldatzen dugun mintzagaiz emakumeen izenean on egin beharra daukat maiz baina halere bere ondoan "pegote" bat sentitzen naiz.

Mari Domingik zer egiten du? Ba inork ez daki jakin Ze ume denak Olentzerogaz daude ekin eta ekin. Ta dagoeneko ni aspertu naiz gure paripe honekin hurrengoan utzi niri ateratzen nire kabalgatarekin edo bestela utzi liatzen Anbotoko Marirekin.



Durango, 2014ko Batzar Nagusia. //XDZ

F.C.BAIMENA: 37/126

ISSN 1138-4530

L.G. 55-614/97

Erredakzioa: Bertsozale Elkarte / Diseinua-maketazioa: Lanku / Argazkiak: Xenpelar Dokumentazio Zentrua
Tel.: (0034) 943 694129 / posta-e: komunikazioa@bertsozale.com

Hainbat berrikuntzarekin abiatu da Arabako Bertsolari Txapelketa

Urtarrilaren 25ean abiatu zen Dulantzin Arabako Bertsolari Txapelketako edizio berria. 18 bertsolari ari dira parte hartzen, eta martxoaren 21ean Gasteizen egingo den finala bitartean sei finalurreko jokatuko dituzte.



Dulantzin jokatu zen lehenengo saioa.//Arabako Bertsozale Elkartea

Izan ere, hainbat berrikuntzekin dator aurtengo Arabako Bertsolari Txapelketa, saio guztiak aretoetan jokatu dira eta liga formatua izango dute finalurrekoek.

Horren ondorioz, bi aldiz kantatuko dute bertsolari guztiak. Gainera, saio bakoitzean bertsolari bakoitzak egin beharreko ariketa kopurua igo egin da, bertsolarien gaitasuna estutzeko ahaleginean.

Horren atzean helburu argi bat dago: bertsolari eta txapelketari berari garrantzia eman nahi izan dio Arabako Bertsozale Elkartek. Horretarako bertsolari, epaile, gai-jartzaileak eta txapelketan era batera edo bestera parte hartzen duten guztiak erdigunean jarri nahi dituzte. Txapelketak berak ezin hobeto erakusten baitu atzean dagoen bertso mugimendua.

Dulantzin eta Laudion jokatu dituzten lehen bi finalurrekoen ostean, Legution (otsailaren 8an), Aramaion (otsailaren 21ean), Zigoitian (otsailaren 28an) eta Langraiz-Okan (martxoaren 7an) izango dira hurrengo finalurrekoetako saioak. Finala martxoaren 21ean jokatu da Gasteizko Principal antzokian.

Txapelketa www.bertsozale.eu/araba eta www.bertsoa.com webguneen bitartez segi dezakezue.

Otsailaren 7an abiatuko da Iruñean Nafarroako Bertsolari Txapelketa

42. ediziora ailegatu da Nafarroako Bertsolari Txapelketa. Hilaren 7an Iruñean hasiko da eta martxoaren 28an amaituko da, Elizondon. Inoizko parte-hartzaile kopururik handiena izango du, osotara 33 bertsolarik eman baitute izena.

Parte-hartzaile kopuru handiaren ondorioz, lehen aldiz txapelketan izena eman dutenen artean kanporaketa bat jokatu zen abenduan Iruñean. Sei bertsolari aritu ziren saio horretan eta hiruk lortu zuten final-laurdenetako txartela. Hortaz, 30 bertsolarirekin abiatuko da final-laurdenetako fasea.

Bost final-laurden jokatu dira otsailaren 7tik 22ra, Iruñea, Iruñea, Zubiri, Lizarra eta Lakuntzan. Horietatik 18 bertsolari sailkatuko dira hiru finalurrekoetarako. Berriozar (martxoak 7), Lesaka (martxoak 8) eta Burlatan (martxoak 15) izango dira finalurrekoak.

Azkenik, Elizondoko pilotalekuan jokatu da aurtengo Nafarroako Bertsolari Txapelketako finala. Martxoaren 28an izango da, 17etan hasita. Bertan zortzi bertsolarik hartuko dute parte.

Saio guztietarako sarrerak dagoeneko salgai dira www.bertsosarrerak.eu webgunean. Ohi bezala, Elkarteko bazkideok prezio berezia duzue.

Nafarroako Bertsolari Txapelketaren inguruko xehetasun guztiak www.bertsozale.eu webgunearen barruan dagoen atalean aurkituko dituzue.

Horrez, gain, www.bertsoa.com atariak ere txapelketaren jarraipen berezia egingo du.



2013an Anaitasunan jokatu zen Nafarroako Txapelketako finala.//XDZ

Bideo-kopla lehiaketa eta "Bertsolaritzaren sekretuak", Korrika Kulturalaren barruan

Bertsolaritzarekin lotutako hainbat ekimen egingo dira Korrika Kulturalaren barruan. Martxoaren 1etik 15era egingo den Bertso Korrikaz gain, bideo-kopla lehiaketa martxan da eta "Bertsolaritzaren sekretuak. Isilduriko emakumeen historia" ikuskizuna eskainiko da hainbat herritan.

Euskal Herriko Bertsozale Elkartek eta Korrikak elkarlanean, bideo-kopla lehiaketa jarri dugu martxan. Ekimenak helburu bikoitza du: alde batetik, euskara ikasten edota praktikatzeko dabilzanak bertsolaritzaren mundura hurbiltzea eta, bestetik, bertsolaritzak euskara praktikatzeko eskaintzen dituen aukerak erakustea.

Euskalduntzean ari diren erakunde guztietako euskaltegiko talde zein praktika egitasmoetako talde guztiei zabalik dago bideo-kopla lehiaketa. Helduen euskalduntzea dute koplak egiteko gaia eta horrekin sei koplaz osatutako bertsoaldia idatzi behar dute eta bideoz grabatu.

Bideoak martxoaren 9a baino lehenago bidali behar dira korrika. aek@gmail.com helbide elektronikora. Martxoaren 15ean jakinaraziko dute saritua nor den. Bertsozale Elkarteko kideek egingo dute lehiaketako epaile lana.

Irabazten duen taldeak bi bertsolarirekin sagardotegi batean afari edo bazkari bat izango du sari.

Emakume bertsolariak

Halaber, Korrika Kulturalaren barruan "Bertsolaritzaren sekretuak. Isilduriko emakumeen historia" ikuskizuna eskainiko da hainbat herritan.

Historiak sekretuan gorde ditu mendeetan zehar izan diren emakume bertsolariak. Emakume hauen lana gaur egunera iristeko zailtasun asko izan badira ere, -beraien bertsoak erre, gorde eta isildu baitira-, batzuk errekupeatzea lortu da.

Emakume bertsolarien ikurra izan zen Joxepa Anttoni Aranberri Petrirena, "Xenpelar" zenaren iloba. Joxepa Anttoni ez zen aurrena izan, ezta azkena ere. Joxepa Anttonirena bezala, askoren ezagutza galdu da bidean eta isilduriko emakumeen historia ekarri nahi da argitara.

Ikuskizunaren bitartez emakume haiek bizi izandako egoerak, denboran eta espazioan atzera eta aurrera, narrazioz, bertsoz eta musikaz lagunduta argitara ekarri nahi izan dute.

Ekimen hauen guztien inguruko informazio zehatza www.korrika.eus webgunean aurkituko duzue.

"Bertsolaritzaren sekretuak" lehen emanaldiak:

Otsailaren 22an,
Hernaniko Biteri Kultur etxean

Otsailaren 26ean,
Iruñeko Antzerki Eskolan.

Martxoaren 7an,
Mungiako Olalde aretoan.

Martxoaren 8an,
Elizondoko Arizkunenea aretoan.

Martxoaren 14ean,
Eskoriatzan.



Bertso udalekuetan begirale, zuzendari edo sukaldari izan nahi?

Uztailean eta abuztuan bertso udalekuak izango dira aurten ere. Guztira 5 txanda egingo dira: Gorozika (Bizkaia), Maule (Zuberoa), Irañeta (Nafarroa), Orio (Gipuzkoa) eta Zuhatza (Araba).

Horietan begirale, zuzendari edo sukaldari izan nahi duten guztiek ateak zabalik dituzte.

Izena emateko epea:
Martxoaren 16ra arte dago zabalik.

Izena emateko, galdetegia bete behar da webgunean:
www.bertsozale.eus

Informazioa:
943 69 41 29 telefonoan edo transmisioa@bertsozale.eus helbide elektronikoa.





Puntua jarrita

JOKIN MURUA

Mila esker, Aitzol, guk ere harro egoteko motiboak ditugula gogorazteagatik. Sarritan ahaztu egiten baitzaigu norberak ere badituela gauza onak, beti kanpokoari miresmenez eta inbidiaz begira egon beharrik gabe.

Gaztetxotan Atauna bertso eskolara joaten nintzenean, miresmenez begiratzen nizuen Ataungo laukoteari. Hain gazte eta horren txukun eta azkar egiten zenuten bertotan, beldurrik gabe igotzen zineten tabladura eta urtez urte zuen buruetan jartzen zituzten eskolarteko txapelak.

Aurrerago inbidiaz begiratzen nien goi mailan zebiltzan Amets, Maialen eta enparauai. Nik eta nire modukoek bertotan egiterik ere ez genuela sinesterraino.

Denborak erakutsi zidan ordea gauzak ez direla zuri edo beltz, bertotan oso ona zara edo ez duzu ezertarako balio, eskolarteko finalera iristen zara edo hobe duzu zure denbora beste zerbaitetan baliatu. Bertsoa ez dela BECeko finala bakarrik!

Uste dut aspaldi gaingitu genuela bertotan dohain berezia dutenek bakarrik egin dezaketenen mitoa. Zuk inbidiaz begiratzen omen diozu Gabiriko bertsozaleasunari, Aitzol. Egia da pozik egoteko arrazoi asko ditugula. Ziur asko Osinalde sariak izango du errua horretan eta herri oso bertsozalea da gurea. Ostegunero 6-8 gazte elkartzen gara elkartean bertsoarako (esan beharrik ez dago edozein bertsozalerentzat atek zabailik daudela) eta haurren bertso eskolan beste 6-8 haur dabilta egun. Ez da makala 500 biztanleko herri batentzat!

Herri bakoitza da ezberdin eta bakoitzak du berea, eta ez nuke amaitu nahi niretzat bertsozaleen eredu den Urretxu-Zumarraga aipatu gabe. Asko ezagutzen ez duena harririk du agian, askori herri erdalduna irudituko zaion herriaren aipamenak. Iparragirre desagertu zenetik "puntako" bertsozaleen eman ez duen herriak badu ordea zer erakutsia.

"Puntakoa" iruditzen zait urtero martxoan bertsoa dinamika antolatzea. "Puntakoa" urtero herriko 20-25 lagun bertotan jardutea. Gaztetxe eta tabernetara, inoiz txapelketako saio bat entzun ez duen jende mordo bat gerturatzea. Herriko bi bertso eskolak (ofiziala eta gaztetxekoa) gaztez beteta egotea. Erdal munduko jendea bertsoa eta aldi berean euskarara hurbiltzea. Bertsoan edonork egin dezakeela sinistaraztea...

BEC izebergaren punta besterik ez da, punta garaia eta distiratsua zalantzarik gabe. Baina ez dezagun ahaztu bertsoa askoz gehiago dela eta bera bizitzeko mila modu egon daitezkeela.

Barkatuko ote didak hire izena puntako bertsozaleen zakuan sartu ez izana, Azkarate?


Koplak

Hilaren 27an hasiko da Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa

Otsailaren 27an abiatuko da Zumarraga-Urretxun Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa. 35. ediziora ailegatu da Gipuzkoako Bertsozale Elkartean eta Ikastolen Elkartean artean antolatzen den txapelketa. Herrialdeko 21 bertsozale hartuko dute parte bertan eta finala egin aurretik, lau kanporaketa jokatuko dituzte.

Eskolartekoaren finala apirilaren 26n izango da, Irungo Amaia antzokian. Herrialdeko Bertso Eskolen Eguna ospatuko dute egun horretan eta arratsaldean Eskolartekoaren azken saioa izango da.

Poto-Finixa



Euripeko bertsozale adoretsuak

Bertsozale Elkartea

Bertsozalea euskarri digitalean jaso nahi?

Berripapera euskarri digitalean jaso nahi baduzu bidali mezu bat komunikazioa@bertsozale.eus helbidera zure izen-abizenak eta berripapera jaso nahi duzun helbide elektronikoa zehaztuz. Bi erataria jaso nahi izanez gero, posta arruntez eta elektronikoz, adierazi mesedez eskaria egiterakoan.

Kontratazioak eta informazio gehiago:



Lanku

www.lanku.com

675 716 472



Eneko Dorronsoren dokumentala